



makina bat taupada

euskal eskola publikoaren jaia, ekainak 2
erreenteria

MAKINA BAT TAUPADA MARRAZKI ERAKUSKETA

“Makina bat taupada” da ekainaren 2an Erreenterian egingo den Euskal Eskola Publikoaren 28. Jaiaren leloa. Irudia sortzeko, Erreenteriari berezkoa zaion ezaugarriren baten bila hasi ginen, eta gure herriak historian izandako ezaugarri nabarmenenetako bat industria izan dela pentsatu genuen. Izan ere, XX. mende hasieran, “Manchester txikia” esaten zioten Erreenteriari, bertako lantegi eta langile kopuruagatik. Estatu osotik familia asko eterri ziren lan bila, eta herria eraldatu egin zen. Gaur egun mantentzen dituen ezaugarri asko industrializazio horren ondorio dira.

(Informazio gehiago: *HERRIA EZAGUTZEN*: <http://ondarea.erreenteria.eus/euskara/unitate-didaktikoak/orain-gu>)

Industria hori engranaje baten bidez irudikatu dugu, ohiko elementua baita, eta erraz identifikatzen dena. Baina gure engranajea pertsonaz osatuta dago, eta eskolako komunitatea osatzen dugunok gara pertsona horiek, elkarrekin lanean aritu behar dugunok. Makinetan engranaje edo pieza oro beharrezkoak den moduan, eskolan guztiok gara ezinbestekoak proiektuak aurrera egin dezan. Batek huts egiten badu, makina ez dabil.

Eta irudi horri lotuta sortu zen leloa: “Makina bat taupada”. Alde batetik, euskal eskola publikoa osatzen dugun familiak asko eta era askotakoak garela adierazi nahi du, eta bestetik, engranaje horiek elkartasuna, bizikidetza eta inklusibitatea irudikatu nahi dute, denon artean makina handi bat osatzu.

Ekainaren 2an, marrazki erakusketa bat antolatuko dugu, eta zuek ere parte hartzera animatzen zaituztegu, zuen ekarpenekin jaialdia kolorez jantziko dugu-eta. Marrazkietan, ikasleek eskola publikoa nola irudikatzen duten islatzea gustatuko litzaiguke.

Egindako marrazkiak egunean bertan ekar ditzakezue, edo makinabattaupada@gmail.com helbidera bidali, e-mailaren gaian “Marrazkiak” jarrita.

Marrazkian ikaslearen izena (abizenik gabe), eskolaren izena eta herria jarri, mesedez.

Anima zaitezte!



makina bat taupada

euskal eskola publikoaren jaia, ekainak 2
erreenteria

EXPOSICIÓN DE DIBUJO MAKINA BAT TAUPADA

El próximo 2 de junio se celebra en Erreenteria la 28^a edición de la Fiesta de la Escuela Pública Vasca, bajo el lema “Makina bat taupada”. Para crear la imagen, nos pusimos a buscar características propias de Erreenteria y consideramos que la industria ha sido la característica más destacable a lo largo de su historia. Y es que a inicios del siglo XX le llamaban “la pequeña Manchester”, por el número de fábricas y trabajadores. Muchas familias del Estado llegaron aquí en busca de trabajo y el municipio se transformó. Muchas de las características de hoy en día son consecuencia de ello.

(MÁS INFORMACIÓN: *HERRIA EZAGUTZEN:* <http://ondarea.erreenteria.eus/euskara/unitate-didaktikoak/orain-gu>)

Para representar esa industria hemos elegido un engranaje, porque es un elemento habitual fácil de identificar. Las personas que formamos las comunidades educativas seríamos esos engranajes, quienes tenemos que trabajar en equipo. Si una falla, la máquina deja de funcionar.

Y en relación con esa imagen creamos el lema “Makina bat taupada”. “Makina”, por un lado, porque somos muchas personas y muy diversas las que formamos la Escuela Pública Vasca, y por otro lado engranajes, que representan la solidaridad, la convivencia y la inclusividad, formando entre todas y todos una gran máquina.

El 2 de junio, vamos a llevar a cabo una exposición de dibujos y os queremos animar a participar, para que vuestros dibujos formen parte de la exposición que llenará de color nuestras calles ese día. Nos gustaría que los y las alumnas plasmaran en sus dibujos qué es para ellos y ellas la escuela pública.

Los dibujos realizados los podéis enviar a la dirección makinabattaupada@gmail.com o podéis traerlos el día de la fiesta.

¡Animaos a participar!